

2021eko apiril honetan DUINTASUNAZ hitz egingo dugu. Arizmendiarrietak giza duintasuna eta justizia azpimarratzen zituen garapen ekonomiko eta sozialaren oinarri gisa. Pertsona guztien duintasuna errespetatu ezean, kolore batekoa edo bestekoa izan, maila ekonomiko edo sozial batekoa edo bestekoa izan, nekez lortuko dugu kooperatiben eta gizartearen garapena aurrera eramatea.

## **Ezin da justiziaz jardun gizakien duintasuna zer den ez dakitenen artean. p3**

*Arizmendiarrietaren idealak osatzen dituzten beste esaldi batzuk:*

*Duintasunez bizitzea da geure buruaz baliatu ahal izatea p9*

*LANKIDETZA pertsonaren eskubideak elkartasun erregimen batean aldarrikatzea da. C21-1962/05*

*Mugimendu kooperatiboa osasuntsua izan dadin, ez da ahaztu behar gizakiaren osotasuna: haragia eta espiritua bat eginda. Ekintza kooperatiboaren emaitzak onak izango dira giza duintasunaren eskakizunak, alderdi material eta espiritual bikoitz eta banaezinetan, salbuespenik gabe betetzen dituztenean. C33- 1963/05*

*SUSTAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA, kulturaren onuretan eta jabetzarako aukeretan diskriminaziorik gabe parte hartuz, pertsonaren duintasunaren baieztapenak dira, eta egitura ekonomiko-sozial egokietan isuri behar dira; arreta berezia eta zehatza merezi izan duten modalitateetako bat kooperatibismoa da. C34- 1963/06*

*Kooperatibara iristeko, aurrez baldintza hauek daudela pentsatzen dugu: duintasunari buruzko kontzientzia, zeinak esan nahi baitu posizio baten deserosotasuna egokitzeko gai izango den sentsibiltate bat dagoela, ekonomikoki aldekoa edo aurkakoa izan daitekeena; lanari buruzko kontzeptu eta estimu bat, norberaren zein gizartearen sustapenera proiektatuta. C38- 1963/10*